

PROGRAMA

HAURREI IPUINAK NOLA KONTATU

PELLO AÑORGA

Kontatzen al dizkiezu ipuinak zure seme-alabei? Zer nolako liburuak erabiltzen dituzu? Nola girotzen dituzu ipuinak? Horrelako gaiekin interesaturik baldin bazaude, lau saioko ipuin tailer hau zuretzat da. 0 – 7 urte bitarte dituzten haurren gurasoei dago bereziki zuzenduta, baina baita irakasleei, hezitzaileei edota interesa duen edonori.

EGITARAUA

1. Kontaketaren garrantzia gaur egun.
2. Ipuinak nola aukeratu kontatzeko.
3. Kontatzeko lau modu aztertu: Irakurketa, ahots gora. Kontaketa, irudiez baliatuta. Kontaketa, irudiez baliatu gabe. Kontaketa dramatizatua
4. Ipuinak kontatzeko baliabideak. Kontatzeko gunea: espazioa eta denbora. Gorputza: ahotsa, keinuak, imintzioak, begirada... Ahozko hizkuntzaren estilistika: elipsia, denbora, hika/zuka, estilo zuzena/zeharkakoa, onomatopeiak... Girogarriak: erritoak. Inprobisazioa. Isiltasunaren erritmoa.
5. Kontalariaren jarrera: konfidantza, gardentasuna, entzumena....

DATAK

Otsaila: 5, 12, 19 eta 26

Ordutegia: 17:00 – 19:00